



MB-123 / 2007.10.25

Anai eta Sekular salletar maiteok:

1. Barrutiko XII. Kapitulurako eta Salletar Hezkuntza Misioaren II. Asanbladarako deia

Zirkular honen bitartez Barrutiko XII. Kapitulurako eta Salletar Hezkuntza Misioaren II. Asanbladarako deialdia egiten dizuet. Harreman estu-estua dago bien artean eta rol osagarriak dituzte, biak toki berera begira baitaude: Anaiok eta Sekularrok elkarrekin daramagun misio komunera. Elkarrekin, beraz, Sarean, Misioak elkartuta, abian jartzera gonbidatzen duen kartelak dioen bezala.

Jaso dugu kartela eta egileen adierazpena. Gure historiaren oroitarazle dugu. Elkartzen gaituen oro ekartzen digu gogora, gure identitate zeinuak. Elkartuta egon eta elkarrekin lan egitera deitzen gaitu, gure “barrutiko koloreen” baitan.

Zertxobait lehenago jaso genuen ARLEPeko salletar guztiak lotzen gaituen lema: **“La Salle, elkarrekin sinetsi eta elkarrekin amets egiteko tokia”**.

Hemen ez gara ari “esnatuta amets egitea”-ri buruz. Hemen **amets egitea** errealagoa eta sakonagoa da. Asmoak egitea da, irrikak adieraztea, helburu bat, xede bat lortu nahi izatea. Ametsak guztiz beharrezkoak dira. Gure ahalegin eta sakrifizioek gure ametsak irauten dutena iraungo dute. Ametsa eroriz gero, itzali egiten da esperantza, irrikak zentzua galtzen du eta gure lehiak galdu egiten du bere ostertza.

Gainera **sinetsi** egiten dugunez, amets egingo dugu Jainkoa presente dagoela gure bizitzan, gure mundu txiki honetako eragozpen eta pozaldietan. Sinetsi egingo diogu gurekin batera diharduen Jainkoari.

Ez dago eskola bezalako tokirik **elkarrekin** sinetsi eta amets egiteko. Bizitzen hasi den haurra, gizarteratze dagoen nerabea federako, ametserako, utopia eta ametserako tokia dira, haiengan ereindako hazia egun batez zuhaitz larden egingo dela espero baitugu, eta horretarako bizi baikara beraiekin egunero.

Proiektu honetan esku hartzera gonbidatzen zaituztegunean, hori guztia adierazi nahi dugu, zerumuga eta asmo berriak jarriko baititu gure misioaren zerbitzura: pobreei giza eta kristau hezkuntza eskaintzea, hain zuzen.

2. Salletar Hezkuntza Misioaren II. Asanblada egiteko prozesua

Egun gutxi barru jasoko duzue eskola eta elkarte guztietan triptiko bat xehetasun guztiekin (1).

2.1. Bide bati ekiten diogu

Bide hori 43. Kapitulu Orokorrak jarri zuen martxan, 2000. urtean, bere 5. eta 6. proposamenetan. Salletar hezkuntza misioaren egitura bat garatzea eskatzen zitzaigun, guztion ahots eta botoaz, eta Anaien eta Sekularren eskuhartzerako irizpideak ezarri ziren.

Hori 2004-2005 ikasturtean burutu genuen SHMaren 1. Asanblada egin genuenean. Orain, hiru urte geroago, SHMaren II. Asanbladarako deia egiten dugu, prozesua bermatzeko.

2.2. Prozesurako egunak

Kartelean ikusia izango duzuen bezala, hauexek izango dira: Guztiei irekitako fasea: abenduak 27-28 eta otsailak 8-9. Fase formala: apirilak 11-12 eta uztailak 7-9.

2.3. Fase irekiak guztiekin kontatu nahi du

Bi topaketa izango dira. Lehenengoa simultaneoki egingo da Barrutiko lau tokiotan: Bilbon, Beasainen, Santo Angelen eta La Salle enean. Aurretik zenbait topaketa egingo dira Batzordeetan, eskoletan, Kristau elkarteetan... eta SHMaren 1. asanbladaz geroztik egindako bidea analizatuko da. Aurretik egindako topaketa horien akta Probintzial-etxera bidaliko da. Bigarren topaketan partehartzaile guztiak San Asension elkartuko dira, gure erantzunaren zain dauden dei berriei buruz hitz egiteko.

2.4. Fase formala

Bertan 41 Sekular eta 21 Anaik esku hartuko dute eta hiru urterako proiektu bat baietsiko du, San Asensioko bigarren topaketan adierazitako lerroak landu ahal izateko. Gero zehaztuko da ordezkari horiek hautatzeko modua.

2.5. Topaketa egunak direla eta

Ulertzen dugu jendeak nahiago izatea aste egunak lan horretarako. Halere, iruditzen zaigu bi topaketa ireki horietarako ezin ditugula eskolak airean utzi, ordezkapen mordo bat eskatuko lukeelako eta ikasleei eman beharreko arretak sufritu egingo lukeelako.

3. Asanblada formalaren eraketa

3.1 Hautatuen kopurua, eta nondik datozen

Eskola bakoitzean bi hautatuko dira, hiru salbuespen kasutan izan ezik. Guztiek bi ordezkari izango dituzte, San Asensiok (1), Txabarrik (1) eta Irun-San Martzialek (3) izan ezik. Kristau Eskoletako Anaiak titularrak ez diren tokietan, bi ordezkapen horietako bat entitate titularraren Presidentearentzat izango da. Dena den, honek posible izango du prozesu guztirako ordezeko bat hartzea edo bere tokia Eskolaren esku uztea, honek erabaki dezan.

Asoziatuak edo asoziazio prozesuan dauden sekularrak eskubidezko bazkide izango dira (3). Anai Ikuslari Titularrak 5 hautatuko ditu SHMrako Kontseiluari entzun eta gero. Honen bitartez oreka lortu nahi da, bai eskualde, bai adin aldetik, edota egon daitekeelako interes orokorrerako pertsonaren bat.

Guztira: 41 sekular.

SHMaren 1. Asanbladan esku hartu zutenak honezkero ohartuko ziren orduan ordezkariak eskualdeka egindako bozketen bitartez hautatu zirela. Oraingo honetan eskolaz eskola egingo dira, izan ere, Asanbladako Sekularren kopurua orduko 30etik oraingo 41era pasa baita. Beraz, SHMA 1.en Anaiak 1/2 izan baziren eta Sekularrak 1/3 bat, oraingo honetan Anaiak 1/3 a izango dira, eta Sekularrak 2/3, ARLEPen eta Institutu osoan egiten den bezala. Hori egin ahal izateko baimenak eskatuta daude.

3.2. Hauek izango dira fase formalerako hautatuak izateko irizpideak:

+ 1. Asanbladakoak. CELen, San Asensioko ikastaro trinkoetan, CELAS regionalean, antzeko ikastaro trinkoetan, Barrutiko Asoziazio eta Misio Batzordeetan, ARLEPeko Batzorde regionalean, ikastetxeko kristau elkartean esku hartu dutenak. Hor sartzan dira ere ikastetxeetako Zuzendariak, eta Ikastetxeko pastoraltzaren arduradun direnak edo izandakoak.

+ Egingo diren lau saioetan esku hartzea onartzea.

Zenbait ohar:

a) Irizpide hauen arabera, Probintzial etxeak bidaliko du Ikastetxe bakoitzean hautagai izan daitezkeen zerrenda. Baten batek, edozein arrazoiengatik, ezingo balu onartu hautatua izatea, zerrendatik baja hartuz jakinaraziko du. Errorerik ikusiko balitz, jo An. Jon Lezamizengana (pastoraltza1@lasalle.es).

b) **Ikastetxe bakoitzean bi bazkide hautatuko dira.** Horretarako bi bozketa egingo dira. Lehenengoa zundatze bozketa izango da. Hautatuen zerrenda azaroaren 30erako jakinaraziko zaio An. Jon Lezamizi.

3.3. Nor izan daitezke hautesle

Horretarako irizpideak aldatu egiten dira 1.SHMAk erabakitakoaren arabera. Irakasle guztiek eta administrazio eta zerbitzuetarako langile guztiek esku hartu ahal izango dute. Baita Zuzendaritzaren eta Probintzial-etxearen iritziz, pertsona esanguratsu izanik Ikastetxean irauteko bokazioa dutenak ere.

Konta ezazue gurekin prozesuan laguntzarik behar izanez gero. Ikasturte zoriontsua opa dizuegu.

3.4. Kostuei dagokiena

Misio Kontseiluak hau erabaki zuen urriaren 18an egindako bileran: Abenduko topaketaren kostua 15 € izango da. Otsailekoarena, 30 €. Ikastetxeek ordainduko dituzte kostu horiek. “Anai ez aktibo”en kasuan euren Elkarteak ordainduko dituzte. Fase formalean Ikastetxe Sareak ordainduko ditu kostu guztiak.

Hemen gaituzue zuen zernahi beharretarako.

II. Salletar Hezkuntza Misioaren Asanblada eta Barrutiko XII. Kapitulu zoriontsua opa dizkizuegu .

Anai Ikuslarien izenean,

*Anai Mikel Balerdi
Ikuslari Titularra*

(1) Barrutiko XII. Kapitulu nola egingo den adierazteko zirkularra aparte idatziko da eta Anaiei elkarteetara bidaliko da.